

GESTIO INTEGRATUKO POLITIKA

Leartiker, S.Coop. zentro teknologiko pribatua eta irabazi-asmorik gabea da, Elikagaien Teknologian eta Polimeroen Teknologian espezializatua. Gure eginkizuna enpresa-ehunari balioa ematea da, I+G+b jardueraren eta jarduera horren transferentzia egokiaren bidez. Berrikuntza-eredu ireki batean oinarrituta, Leartiker elkarlanean sortutako proiektua da, ezagutza balio erantsi bihurtuz, dibertsifikazio-prozesuak erraztuz eta lanpostu berriak sortuz, batez ere toki-eremuan.

Leartikerren ikerketa eta transferentzia teknologikoko jarduerak konbinatzen ditugu, gure espezializazio teknologikoen ikerketa-ildoen bidez ezagutza garatuz eta enpresekin lankidetzan arituz, arlo hauetan balio lehiakorra emateko helburuarekin:

Elikagaien teknologia:

- Esneki: gazta eta esneki berriak, aholkularitza tekniko aurreratua eta prestakuntza espezializatua, ekoizle txikien dibertsifikazioa eta lehiakortasuna sustatuz eta berrikuntzarako grina helaraziz.
- PREST: animalia zein landare-jatorriko tokiko lehengaiekin egindako produktu osasungarri eta iraunkor berriak, balio erantsia dutenak.

Polimeroen Teknologia:

- Osasuna: gailu medikoetan erabiltzeko material polimeriko biobateragarri berriak.
- Garraio jasangarria: egitura polimeriko arinak, fidagarriak eta isilak, eta horien portaera digitalizazio-tekniken bidez iragartzea.

Leartiker eta kudeaketa integratuko politika hori bateratu egiten dira, Leartiker proiektuko aktibo nagusia diren pertsonen itxaropenak betetzeko. Erakundearen etengabeko hobekuntzari estaldura ematen diogu, Kudeaketa Sistema Integratuaren helburuak ezartzeko erreferentzia-esparru bat eskainiz eta beti ere gure balioetan oinarrituz: INPLIKAZIOA, KONFIANTZA, ZERBITZURAKO GOGOIA, POSITIBISMOA ETA ZORROZTASUN ZIENTIFIKOA.

Leartikerreko zuzendaritzak politika horren lidergoarekin, betetzearekin, garapenarekin, mantentzearekin eta etengabeko hobekuntzarekin duen konpromisoa adierazten du, arlo horretan kontsulta eta parte-hartzea sustatuz. Ezinbestekoa bilakatzen da Leartiker osatzen dugun pertsona guztien inplikazioa, lankidetzak, parte-hartzea eta kontzientziak, etengabeko hobekuntzaren kultura sustatuz eta aplikatu daitezkeen baldintzak betez.

Laguntza eta onarpen froga gisa, Gestio Integratuko Politika hau sinatzen dut.

Jon Anakabe
Zuzendari Orokorra

Markina-Xemein, 2022ko ekainak 1